

GASTEIZKO INDUSTRIA PLANA INPLEMENTATZEA

Posted on 16/04/2024 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Análisis ekonomikoa eta lehiakortasuna](#), [Gasteiz](#), [Industria Plana](#)

Gasteizko Industria Mahaiak osoko bilkura egin du gaur, apirilak 16, Industria Babesteko Planaren aurrerapenak udaleko arduradunekin kontrastatzeko. Plan hori Vitoria-Gasteiz industria-hiri gisa lehiakortasuna indartzeko tresna nagusia da.

Ekonomia Sustapen, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sailak anfitrioi gisa jardun du, eta bertan izan dira María Nanclares zinegotzia, Maite de Juan saileko zuzendaria eta Juncal Ibeas enpresen zerbitzuko burua.

Testuinguru horretan, Naiderretik aukera izan dugu Planean zehar inplementatutako jardueren ordezkapenei buruzko elkarriketa dinamizatzeko.

Industria Mahaiak udalerriko industrialdeak ordezkatzan dituzten enpresarien elkarteak eta enpresak Gasteizko Udalarekin biltzen ditu, haien eskaerak eta kezkak jasotzeko eta jarduerak adosteko. Urtean bitan biltzen da osoko bilkuran, eta parte hartzeko bideak zabalik ditu kide diren eragileen artean.



